

ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramateko laguntza behar izango dugu. Aliantzen eta bazkideen bidez lortuko dugu gure ideia aurrera eramatea. Hornitzaile eta bazkide sare hauek diru-laguntza edota bestelako laguntza-mota batzuk emango digute. Hauek guretzako oso garrantzitsuak izango dira, gure kostuak minimizatzeko lagundu ahal dituztelako.

Gasteizko Udaletxearekin lan egitea gure helburu handienetako bat da, izan ere, haiek eremu publiko guztiak kontrolpean dituztelako. Haiekin lan egiterakoan, alde batetik, gure negozio-eredua optimizatu ahal genuke: azpi-egiturak konpartituzerakoan gure lana errazago izango lirateke. Bestetik, baliabideak eskuratzea, hala nola lizentziak eta diru-laguntza publikoak, errazago lortu ahal genituzke.



Baita ere, azpi-kontratazioak beharrezkoak izango dira gure proiektua aurrera eramateko. Langile bat edo gehiago beharko ditugu teknologia arloa eramateko. Esaterako, aplikazioa sortzeko, eguneratzeko eta birusen eta hackerren eskura ez edukitzeko. Jarduera hauek egiteko langile iraunkorra izan genezake baina gauza zehatzetarako azpikontratazioa erabiliko genuke.

Gure lehiakide handienak parking pribatuak dira. Hala ere, hirian kokatzen diren edozein parking pribatuak gure aplikazioarekin edo deskontu mota batekin lotura duen sarrerak sortzeko prest egongo balitz, bazkide izateko aukera molda liteke.

